

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honetako ikaslearen orriak aldizkari txiki baten formatuan dituzu. Aldizkari-itxura eman nahi badiozu, kopiak DIN A3 tamainan atera ditzakezu, eta erditik tolestu, ondoko irudietan bezala.

AZALA ETA KONTRAZALA

04 Denbora-pasak

LEKU ETXURUA
Zer da leku etxurua?

— KORRIKA BAT BERTAN BAZO, DENBORAREN BARRA BARRA KONTRAZALA ERABILTZEKO DA. ERABILTZEKO BARRA BARRA ERABILTZEKO DA.

LAU DAIEZ
Zer da lau daiez KORRIKARI BARRA BARRA ERABILTZEKO BARRA BARRA ERABILTZEKO DA.

20 ezizunak, KORRIKA...
A. ... 7 aldiz erabili da bertan.
B. ... 4 aldiz erabili da bertan.
C. ... 2 aldiz erabili da bertan.
D. ... 3 aldiz erabili da bertan.

20 ezizunak, KORRIKA...
A. ... 10 aldiz erabili da bertan.
B. ... 8 aldiz erabili da bertan.
C. ... 6 aldiz erabili da bertan.
D. ... 4 aldiz erabili da bertan.

20 ezizunak, KORRIKA...
A. ... 12 aldiz erabili da bertan.
B. ... 10 aldiz erabili da bertan.
C. ... 8 aldiz erabili da bertan.
D. ... 6 aldiz erabili da bertan.



Garestik Gasteiza **A2**

Apirilaren 11. KORRIKA ostertiko da berriro Euskal Herria, eta egun batzuetan milaka korrikariari ikusiko ditugu gure **erregioetan**. 21. KORRIKA Gurean hasiko da, apirilaren 21an, eta 14an, Gasteizen amaituko da. Bidean, berriz, korrikariak Euskal Herriko herri askotan ibiliko dira.

BARNEKO ORRIALDEAK

02 21. KORRIKA

Erregioetan lasterretar?

— **GAREZ**

— **MAHAIKALDE**

— **ERREGIOETAN**

03 Gaurko gara

KORRIKARIAN Ibiliteko. Gaurko gara

GASTEIZ

KORRIKARIEN APFA

DINAKO HITZAK

“GARESTIK GASTEIZA” A2

HELBURUA

Ataza honen helburuak dira, batetik, KORRIKAREN ibilbidea ezagutaraztea, eta, bestetik, Euskal Herria hobeto ezagutzea. Horretarako, ikasleek 21. edizioaren ibilbidea azaltzen duen artikulua irakurriko dute, eta, ondoren, KORRIKARI buruzko mahai-jokoan ariko dira.

PROZEDURA

A. 21. KORRIKAREN IBILBIDEA

- Hasteko, ataza azalduko diegu ikasleei, labur: KORRIKAREN ibilbidea azaltzen duen aldizkaritxoa irakurriko dugu, eta ibilbideari eta euskal geografiari buruzko lanak egingo ditugu.
- Aldizkaritxoa errazago ulertu ahal izateko, “Geografiari buruzko lexikoa” jokoan egingo dugu:

“GEOGRAFIARI BURUZKO LEXIKOA” JOKOA

Jokoaren helburua

— Jokoan agertuko diren geografiari buruzko hitzak dagozkien irudiekin edota esanahiekin lotzea.

Jokoaren arauak

- Ikasleak binaka jarrita, “Geografiari buruzko lexikoa” ikus-entzunezkoa jarriko dugu. Ikus-entzunezkoa behin edo birritan ikus dezakegu.
- Ikasleek pantailan agertzen diren hitzak dagozkien irudiekin edo esanahiekin lotu beharko dituzte. Erantzunak “Geografiari buruzko lexikoa” ariketan jasoko ditzute (4. or.). Ariketa zuzentzeko “Geografiari buruzko lexikoa. ERANTZUNAK” ikus-entzunezkoa ikusiko dugu.
- Asmatutako hitz bakoitzeko puntu bat irabaziko dute jokalariek.

- Aldizkariak banatu aurretik, “Mapa osatzen” ariketa egingo dugu: ikasleek bakarka, aipatzen diren lekuak kokatu beharko dituzte mapan (5. or.). Ariketa zuzendu gabe utziko dugu, aurrerago hartuko baitugu berriro.
- “Garestik Gasteiza” aldizkaritxoan banatuko diegu, ikasleek ibilbideari buruzko artikulua irakurriko dute, eta, bakarka, proposatzen zaien ariketa egingo dute (aldizkaritxoan, 1.-3. or.): esaldietako hitzak deklinatu eta esaldiok egia ala gezurra diren esango dute. Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUNAK:

1. apirilAREN (GEZURRA, 7ko goizaldean helduko da); 2. BardeATIK (GEZURRA, Tafallaldea Bardeako iparraldean dago); 3. korrikalariEK (EGIA); 4. eskualdeETAN (GEZURRA, 13an ibiliko da horietan); 5. GernikaRA / BilboTIK (EGIA); 6. herriAK / KORRIKAK (GEZURRA, Baztan ez dago Iparraldean; 7. 10EAN (EGIA); 8. eskualdeETARA (EGIA).

- Ikasleak, binaka, ibilbideari buruzko artikulua aurrean dutela, “Mapa osatzen” ariketako erantzunak adosten saiatuko dira. Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUNAK:

1. Enkarterria; 2. Gorbeia; 3. Lea-Artibai; 4. Bastida; 5. Debagoiena; 6. Pasaiako itsasadarra; 7. Bardea; 8. Iratiko basoa; 9. Lizarraldea; 10. Maule; 11. Angelu; 12. Lautada.

- Ikasleek, binaka, KORRIKAK zeharkatuko duen herri bat aukeratuko dute (ezagutzen duten herri bat) eta horren aurkezpen txikia idatziko dute: KORRIKA zein egunetan igaroko den bertatik, nolakoa den...
- Testuak ozen irakurri eta zuzendu egingo ditugu.
- Denbora-pasak eskolatik kanpo egitea proposatuko diegu ikasleei: epe bat jarriko dugu, eta, nahi duten bidea erabiliz (Interneten nabigatu, lagunei galdetu...), erantzun zuzenak aurkitzen saiatuko dira. Behin epea beteta, erantzunak talde handian alderatu eta zuzenduko ditugu.

ERANTZUNAK:

Leku ezkutua: Donibane Garazi

Lau baietz: 1-c; 2-d; 3-d; 4-d

B. KORRIKAREN jokoak

- KORRIKAREN ibilbidea, Euskal Herriko geografia eta mailari dagozkion hainbat eduki berrikusteko jokoak egingo dugu. Jokoaren prozedura, taula eta fitxak “KORRIKAREN ibilbidearen jokoak, A2” dokumentuan dituzu.

ERANTZUNAK:

Jokoaren erantzun gehienak txarteletan daude azpimarratuta, baina gutxi batzuek txarteletan agertu behar ez dutenez, hona ekarri ditugu:

KORRIKA-logotipoak:



11. KORRIKA,



12. KORRIKA eta



13. KORRIKA.

Hieroglifoak:

- Zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldetik atera ondoren? **Irun.**
- Herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen. **Andoain.**
- Nola egingo duzu korrika? **Kohete** batek bezala.
- Zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAn? **Hamaika.**

Izartxoak:

1. 12. KORRIKA; 2. Egan; 3. Esne Beltza; 4. Ines Osinaga; 5. 1. irudia; 6. C; 7. C; 8. 2. irudia.



Geografiari buruzko lexikoa

— IKUSI "GEOGRAFIARI BURUZKO LEXIKOA" BIDEOA ETA LOTU ONDOKO HITZAK DAGOZKIEN LETREKIN.

- 1.** Iparralde
- Mendebalde
- Ekialde
- Hegoalde

- 2.** Basamortu
- Mendate
- Mahasti
- Errepide
- Mendilerro
- Baso

- 3.** Auzo
- Herrialde
- Hiriburu
- Eskualde
- Hiri
- Herri

EUSKAL HERRIKO LEKUAK

- 4.** Donibane Garazi
- Añana
- Bizkaiko Zubia
- Bardea
- Orreaga
- Gares



— LOTU ONDOKO LEKU HAUEK DAGOZKIEN ZENBAKIEKIN:

ESKUALDEAK:

- Lea-Artibai
- Lautada
- Enkarterria
- Lizarraldea
- Debagoiena

HERRIAK, HIRIAK...

- Maule
- Bastida
- Angelu

BESTE LEKUAK

- Gorbeia mendia
- Bardea
- Pasaiaiko itsasadarra
- Iratiko basoa

